

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

EAEko Toki Erakundeetako Langileen Lan Baldintzak (UDALHITZ) arautzen dituen Akordioa aldatzeko erabakia

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 31. artikulua honela dio: "Enplegatu publikoek negoziazio kolektiboan jarduteko, ordezkariek izateko eta instituzioetan parte-hartzeko eskubidea dute, beren lan-baldintzak ezartzeko orduan"; eta 37.1 artikuluan adierazten du negoziatu beharreko gaiak izango direla, besteak beste, "lan-egutegia, ordutegiak, lanaldiak, oporrak, baimenak, mugigarritasun funtzionala eta geografikoa, baita giza baliabideak estrategikoki planifikatzeko irizpide orokorrak ere, enplegatu publikoen lan-baldintzetan eragina duten alderdiei dagokienez".

Era berean, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 163.1 artikulua honako hau arautzen du: "Enplegatu publikoek enplegu publikoaren oinarrizko legerian eta aplikagarriak diren lege eta araudietan araututako baimenak edukiko dituzte, baita negoziazio kolektiboko tresnen bidez xedatu daitezkeenak ere".

Negoiazio mahai orokorrean negoziatu ondoren, Aguraingo Udalaren ordezkaritzak eta Aguraingo Udaleko langileen ordezkaritza sindikalak aurreakordioa lortu dute euskal toki erakundeetako langileen lan baldintzak aldatzeko (UDALHITZ).

Aginduzko txostenak ikusita, barne antolamenduko informazio batzordearen proposamenez, eta udalbatzak 2024ko ekainaren 27an egindako osoko bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. EAEko Toki Erakundeetako Langileen Lan Baldintzak (UDALHITZ) arautzen dituen Akordioaren 28. artikulua aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

"28. artikulua. Oporren iraupena

1. Erabateko zerbitzu aktiboko administrazio egoeran dauden langileek hogeita lau laneguneko opor ordainduak hartzeko eskubidea izango dute zerbitzuan emandako urte oso bakoitzeko, astelehenetik ostiralera zenbatuta, edo proportzioz dagozkien egunak, zerbitzuan emandako denbora laburragoa bada.

2. Erabateko zerbitzu aktiboko urtea betetzen ez dutenentzat, oporren iraupena izango da lanean hasi zirenetik edo lanera itzuli zirenetik igarotako zerbitzu denboraren arabera, egun horretatik abenduaren 31ra arte zenbatuta, eta emaitza gorantz biribilduko da, egunka.

3. Antzinasunaren ondoriozko opor gehigarriak. Erabateko zerbitzu aktiboko administrazio egoeran dauden langileek eskubidea izango dute gehienez ere lau opor egun gehigarri hartzeko emandako zerbitzu denbora oinarri, eskala honen arabera:

27 urtetik aurrera: 3 egun.

30 urtetik aurrera: 4 egun. "

Bigarrena. 60 bis artikulua eranstea EAEko Toki Erakundeetako Langileen Lan Baldintzak (UDALHITZ) arautzen dituen Akordioan. Honela idatzita geratuko da:

“60 bis artikulua. Erretiroa hartu aurreko baimena

Aguraingo Udaleko langileek baimen ordainduaz gozatu ahal izango dute beren eguneko lanaldiaren 18 minutu hartzeko, erretiroagatik lanpostua uzteko aurreko urtean.

Baimen hori ezin izango da metatu. “

Onetsi eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean EAEko Toki Erakundeetako Langileen Lan Baldintzak (UDALHITZ) arautzen dituen Akordioaren aldaketa horiek.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Agurain, 2024ko uztailaren 30a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR